



Ukimen-tailerra

FITXA

5

Helburuak

- FRUTA-KONTSUMOA HANDITZEA.
- FRUTAK UKIMENAREN BIDEZ EZAGUTZEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. maila.
Gaztelania, euskara eta atzerriko hizkuntza.
• Hizkuntzen trataera integrala.

Gomendatutako adina _____

3-8 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Fruta bat sartuko da kutxa/poltsa baten barruan, eta ikasleek ukimenaren bidez zein den asmatu beharko dute. Hainbat fruta erabiliko dira, 5 gutxienez.

Ukimen bidezko identifikazioan erabilitako frutetako bat aukeratuko da egunero; fruta horrek ekartzen dituen onurak, bitxikeriak eta abar komentatuko dira, eta, ondoren, dastatu egingo da.

Ikasgelan ikusitako fruta etxean eskatzera animatuko ditugu ikasleak.

Hainbat hizkuntzatan egin daiteke jarduera, ikasleen adinaren arabera.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jardueraren aurretik, ikasleen elikadura-alergiak edo kontaktuagatik dituztenak kontsultatuko dira, jarduerarako hautatutako frutei dagokienez.



Egutegi eredia/Iraupena _____

15 minutuko iraupena, jolasaldiaren aurretik.
Astean egun bat, 5 astean zehar.
Neguan eta udaberrian errepika daiteke jarduera, frutak aldatzeko.

Jarduera-eremua _____

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Beste bat

Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Beharrezko baliabideak

Giza baliabideak:

Monitore bat Lehen Hezkuntzako 20 neska-mutileko.
Monitore bat Haur Hezkuntzako 10 neska-mutileko.
Hizkuntza irakaslea, hala badagokio.

Materialak:

Hainbat fruta mota.
Kaxak edo poltsak. Denentzako bakarra edo haur bakoitzarentzat bana izan daiteke.
Labanak/Aho-zapiak.
Frutaren fitxa.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak

Ebaluazio jarraia bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek hautatutako frutak ukimen bidez identifikatu dituzten.
- Ikasleek hautatutako fruta guztiak probatu dituzten.
- Ikasleek astean zehar eskolan ikusitako fruta etxean jan duten.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)

Aurretiazko esperientziak:

- http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/79586/forum_2003_28.pdf?sequence=1

Material lagungarria:

- http://www.fen.org.es/mercadoFen/mercadofen_ajus_Joven.html
- http://www.fen.org.es/mercadoFen/mercadofen_ajus_Ingles.html
- <https://www.vix.com/es/imj/salud/7388/18-curiosidades-sobre-las-frutas-que-te-resultaran-interesantes>

Bibliografia:

- Park BK, Cho MS. Taste education reduces food neophobia and increases willingness to try novel foods in school children. *Nutr Res Pract*. 2016; 10(2):221-8.
- Reverdy C, Chesnel F, Schlich P, Köster EP, Lange C. Effect of sensory education on willingness to taste novel food in children. *Appetite*. 2008; 51(1):156-65.
- Mustonen S, Tuorila H. Sensory education decreases food neophobia score and encourages trying unfamiliar foods in 8-12-year-old children. *Food Qual Prefer*. 2010; 21(4):353-360.

